

# Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eta enplegu- planak berraktibatzea

*Porrot egin duen politika ilun batera  
itzultzeak parte hartzen duten erakundeei  
soilik egiten die mesede*



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**

**EUSKAL SINDIKATUA**



Elkarrizketa sozialak historia luzea du Nafarroan, ez da inolako berrikuntzarik honetan. Denborak erakutsi du honen helburu nagusia diru publikoz finantzatzea eta diru publikoaren kudeaketa bake sozialaren eta Gobernuaren politikei laguntzearen ordeztatzea dela. Ezer ez langile klasearen interesen alde.

Elkarrizketa soziala baliabide eta politika publiko jakin batzuen pribatizazioa eta kudeaketa eskusiboa da, modu ez gardenean. Zoritxarrez, Nafarroan horren adibide kezagarriak ditugu: enplegurako prestakuntza, laneko osasuna, immigrazio politikak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren hitzarmenak edo baita babestutako etxebizitzekin ere.

Kudeaketa-eredu eta enplegu-politiken eredu hori guztia berpiztu nahi izatea eredu horretan parte hartzen dutenen onurarako baino ez da, gizartearen gainerakoarentzat eta langile klasearentzat porrot egin duten eta beren arazoak konpontzeko eraginkorrak ez diren politikak baitira.

## 1.- Langile klaseari eta aurrekontu publikoari egindako iruzur baten kronika

### 1.1.- Enplegurako prestakuntzaren negozioa

Nafarroako Gobernuak 1998an sortu zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzua, enplegu politika aktiboak kudeatzeko. Erakunde autonomoa da, eta enplegu-politikak planifikatzea, gauzatzea eta kontrolatzea ditu eginkizun.

Nafarroako Gobernuak, sindikatuetako eta patronaleko ordezkariak osatutako hiruko organoa da. Nafarroako Gobernuaren transferentzien bidez finantzatzen da (% 55 gutxi gorabehera), Estatuaren transferentzien bidez (% 40 gutxi gorabehera) eta Europatik egindako transferentzien bidez (% 5 gutxi gorabehera).

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eginkizun nagusietako bat da enplegurako prestakuntza kudeatzea. Enplegurako prestakuntza, bi programa nagusiren bidez antolatzen da: langabeei zuzendutakoa, eta enplegua duten pertsonen zuzendutakoa.

2015. urtera arte, enplegua dutenei bideratutako prestakuntza-partidaren kasuan, CEN, UGT eta CCOO ziren diru-laguntza horietara modu eskusiboan aurkeztzen zirenak. Erakunde horiek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaritza-organoean zeuden aldi berean. Hau da, epaile eta parte ziren diru laguntza horiek antolatzeko eta esleitzeko orduan.

Horren ondorioz, Nafarroa zen Espainiako Estatu osoan langabeentzako prestakuntzarako baino enplegua dutenen prestakuntzarako funts gehiago bideratzen zuen toki bakarra; beraz, enplegua duten pertsonentzako prestakuntza-planerako partida zen gastu-partida nagusia.

Adibide gisa, 2014an CEN, UGT eta CCOO sindikatuei esleitu zitzairen enplegua duten pertsonentzat zuzenduriko enplegurako prestakuntzarako partida osoaren % 89,5.

Comptos Ganberak ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzua aztertu duenean, ondorioztatu du erakunde horiek enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen bidez zuzentzen, deitzen eta esleitzen zutela diru publikoa, eta azpimarratu du "*saihestu egin beharko litzatekeela erakunde batek berak parte hartzea Nafarroako Enplegu Zerbitzua bezalako erakunde baten zuzendaritza-organoean, lankidetzak-hitzarmenen aurreko adostasuna ematea eta, aldi berean, erakunde horiek onuradun izatea lanbide-heziketako diru-laguntzen esparruan*".

Opakutasunak irregulartasunak ahalbidetu ditzake. Beraz, derrigorrezkoa da diru publiko ororen kudeaketa gardena izatea eta fiskalizatzea. Elkarrizketa sozialaren eredu horrek berak sortu ditu eskandaluak, hala nola Andaluziako enplegu-erregulazioko espedienteak edo Bankiako txartel opakoak. Horren erakusgarri da Comptos Ganberak elkarrizketa sozialarekin lotutako elementuak fiskalizatu dituen guztietan irregulartasunak atera direla argitara.

## **1.2.- Interes partekatuarentzako urrezko domina bat**

Hiruko kudeaketa-eredu hori izugarri emankorra da bere kideentzat, ez hainbeste langile klasearentzat, ezta gizartearentzat ere. Izan ere, 2008an Miguel Sanz buru zuen UPNren Gobernuak Nafarroako Urrezko Domina eman zien CEN, UGT eta CCOOri, "*Proiektu handien alde erakutsitako jarrera iraunkorragatik*".

Domina hori erakunde horiek momentuan momentuko gobernuarekin elkarrizketa sozialari eusteko izan duten (eta duten) interes partekatuaren isla da: Gobernuaren politikak txalotzen diren bitartean, botere kuota eta finantzaketa publikoa lortzen dute.

CENek, UGTk eta CCOOk botere kuota eta diru publikoaren finantzaketa eta kudeaketa baliatzen dituzte; Gobernuek, berriz, erakunde horiek bere politiketan laguntzea eta txalotzea lortzen dute. Horrela, gobernuek beren politikak gauzatzean dituzten erantzukizunak eta enpresek enpleguan, prestakuntzan edo laneko segurtasunean eta osasunean dituzten erantzukizunak desagertzen dira.

## **1.3.- Ekonomia eta enplegua suspertzeko akordioa. Barcinari oparia izan ez zen argazkia**

### **1.3.1.- Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua**

2014ko urriaren 3an sinatu zuen Barcinaren gobernuak ekonomia eta enplegua suspertzeko akordioa CENekin, UGTekin eta CCOOekin. UGTren izenean, Javier Lecumberri Nafarroako idazkari nagusiak sinatu zuen akordioa, eta orain PSNko parlamentaria da. Testu horren barruan Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzea adostu zuten.

Gogoratu behar da, gainera, akordio hori sinatzea izan zela Barcinaren gobernuak garai hartan izan zuen propaganda argazki bakarra, gobernu hori politikoki erabat isolatuta baitzegoen. Hau da, CENek, UGTk eta CCOOk bakarrik eman zioten babesa (akordio hau sinatuta) gutxiengoan zegoen gobernu bati, azken hamarkadetako murrizketarik odoltsuenen erantzule denari. Baina argazki hori, bistan denez, interesatua izan zen alde guztientzat.

Handik gutxira, Nafarroako Parlamentuak Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzen duen 22/2014 Foru Legea onartu zuen. Sortu zenetik aldatu ez den Foru Lege honek, orain berpiztu nahi den Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzea aurreikusten du.

Foru lege honek estatus handiagoa eman nahi dio Nafarroan 1995etik diharduen elkarrizketa sozialeko mahaiari, besteak beste, 16. artikuluan organo horretan parte hartzen dutenek diru-laguntza bat jaso behar dutela parte-hartze hutsagatik ezarriz (hasiera batean 900.000 euro esleitu zitzaizkion). Egia da finantzaketa hori ez dela orain arte gauzatu, baina egia da ere artikulua horrek indarrean jarraitzen duela.

Hau da, normaltasun izaera ematen zaio gobernuek ezarritako politikak lagundu eta txalotzearen truke aurrekontu publikoen zati bat jaso eta kudeatu duen elkarrizketa sozialari, nahiz eta langile klasearen interesentzat guztiz eragingabea izan den.

### ***1.3.2.- Enplegurako prestakuntzaren ustelkeria Andaluzian eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren hitzarmenen eskandalua***

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, 2015ean, aldebiko 23 hitzarmen egin zituen gutxienez CEN, UGT eta CCOOekin. Izan ere, Estatuko araudian izandako aldaketa baten ondorioz (30/2015 Legea), 2015etik aurrera enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzak lehia irekiaren bidez eman behar dira, hau da, lehiaketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituen edozein erakundek parte hartu dezake lehiaketan.

Araudi berri honen berritasun nagusia prestakuntza-programak finantzatzera bideratutako funtsak prestakuntza-hornitzaile guztiei irikitzen zaiela, hau da, ordura arteko esleipen eskusiboekin amaitzen duela.

Araudi berri hori Andaluzian eta Estatuko beste leku batzuetan enplegurako prestakuntzan izandako ustelkeriaren ondoriozko eskandaluen testuinguruan ematen da. Horren ondorioz, enplegurako prestakuntza emateko diru-laguntzak esleitzeko sistema aldatu egiten da. Sistema hori Nafarroan, Andaluzian eta Estatuko gainerako tokietan berdina zen. Besteak beste, Kontu Auzitegiak berak gomendio bat egin zuen aurreko erregulazioa aldatzeko.

Beraz, prestakuntza diru-laguntzak CEN, UGT eta CCOOi esleitzea bermatzen zuen konkurrentzia eskusiboaren formularekin jarraitzea ezinezkoa zenez, araudi berriak aurrez aurre talka egiten duelako sistema horrekin, alde biko hitzarmenak egin ziren Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta hiru erakunde horien artean.

Horretarako, aurrekontu-aldaketa bat egin zen, eta, horren ondorioz, enplegurako prestakuntzarako gastu-partidak murriztu ziren eta hiru erakunde horiekin aldebiko hitzarmenak egitera bideratu zen diru hori. Hau da, diru hori lehia eskusiboaren bidez esleitu ezin denez, diru hori Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta CEN, UGT eta CCOOen arteko alde biko hitzarmenetara bideratzen da.

Hori posible egin zen 7/2015 Foru Legeari esker, zeina, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren Foru Legea bezala, Barcinaren Gobernuarekin sinatutako ekonomia eta enplegua suspertzeko akordioari esker jaio zen.

Beraz, UPNren gobernuak CEN, UGT eta CCOOekin sinatu zuen akordio hark, PSNren oniritziarekin eta babesarekin, batetik Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortu zuen, eta bestetik hitzarmenak ahalbidetu zituen.

### ***1.3.3.- UGT eta CCOOeko 120 soldata baino gehiago hitzarmenen bidez ordaindu ziren***

Hitzarmen horiek diru-laguntzen sistema bat ziren. Hauei esker, aurrekontu publikoaren kargura, Gobernuak CEN, UGT eta CCOOen esku uzten zituen Administrazioaren berezko eginkizunak (esaterako, enplegu-behatokia kudeatzea edo etorkinei arreta ematea), edo, besterik gabe, erakunde sindikalen eta patronalen berezko eginkizunak diruz laguntzea adosten zuten, hala nola hitzarmen kolektiboetan berdintasuna sustatzea, afiliatuei aholkuak ematea, enpresak bisitatzea langileak informatzeko edo sentsibilizatzeke.

Ekintza horiek %100ean diruz laguntzen ziren, eta diru publikoarekin ordaintzen ziren bai soldatak, bai erakunde patronalen eta sindikalen gastu orokorrak. Hitzarmen horien aurrekontua 30.000 euro eta 2 milioi euro artekoa zen.

Horren ondorioz, UGTko eta CCOOeko 120 pertsona inguruk jaso zuten beren soldata (osorik edo zati batean) hitzarmen horien bidez jasotako diru-laguntzetatik, hau da, altxor publikotik. Besteak beste, CCOOeko exekutibako 5 kidek eta UGTeko exekutibako 4k, gutxienez, beren soldata (osoa edo partziala) kobratu zuten hitzarmen horietan. Aurrekontu publikorako soldata ahuen kostua 2 milioi euro ingurukoa izan zen 2015ean.

Hitzarmenen bidez 750.000 euro inguru jasotzen zituzten beren erakundeen gastu arruntak ordaintzeko, hala nola argia, alokairua, telefonoa... Honi esker, UGTk, 2015ean bere gastu arrunt guztien % 63 finantzatu zuen. CCOOen kasuan, % 40,1a, eta CENek 2015ean bakarrik 53.000 euro kobratu zituen bere gastu arruntak ordaintzeko.

### **1.3.4.- Ia 2,5 milioi euro 77 azterlanetan**

CEN, UGT eta CCOO sindikatuek Nafarroako Enplegu Zerbitzuan zuten beste finantzaketa bide bat azterlan ezberdinak esleitzea zen.

Azterketa horiek 2016ra arte INAFREekin egindako aurrekontu-partida baten bidez esleitzen ziren, eta CENek, UGTk eta CCOOk horren % 88,2a eskuratu zuten 2012tik 2015era.

Horrek esan nahi du 4 urtean ia 2,5 milioi euro ordaindu zirela 3 erakunde horiek egindako 77 azterlanengatik, hau da, batez beste 32.000 euro azterlan bakoitzeko.

Guztira, CENek 40 ikerketa egin zituen 4 urte horietan, eta 793.765 euro kobratu zituen; CCOOk 21 egin zituen 884.787 euroko kostuarekin, eta UGTk 16, 785.136 euroko kostuarekin.

## **1.4.- Enplegu-planak**

1998tik lau Enplegu Plan onartu dira, eta azkenaren luzapena. CENek, UGTk eta CCOOek 1999-2001 urteetarako lehen Enplegu Plana sinatu zuten Nafarroako Gobernuarekin, 2001ean 2002-2004 urteetarako II. Enplegu Plana sinatu zen, 2004an III. Enplegu Plana sinatu zen (2005-2007), eta 2009an IV. Enplegu Plana sinatu zen (2009-2012). Azkenik, 2013ko abenduan IV. Enplegu Plana (2013-2014) luzatzea erabaki zen.

Plan horiek guztiek elementu komun hauek izan dituzte: diru publikoaren kopuru handiak esleitzea, horiek sinatzerakoan lorpen handiak izango zirela hitzimatea eta amaitu ondoren diagnostiko autokonplazentea eta propagandaz betea egitea. Horrela, 2014ko luzapenak bakarrik 43,4 milioi euroko aurrekontua zuen, II. Enplegu Planak 417,1 milioi euroko aurrekontua izan zuen eta III.ak 431,6 milioi eurokoa. Guztira 1.500 milioi euro baino gehiago bideratu dira enplegu-plan ezberdinetara.

Enplegu-plan horien guztien helburua ez da izan benetako enplegu-politika bat bultzatzea, eredu klientelista bat garatzea baizik.

Plan horietako bakar batek ere ez ditu lortu planteatutako helburuak, eta horrek erakusten du ez dutela balio enpleguaren arazoak konpontzeko: langabezia-maila handiak, prekarietatea, laneko ezbehar-tasa gero eta handiagoa, enplegurako prestakuntzaren kalitate txarra, eta abar.

Ebidentziak erakusten du plan horien erabateko porrota, enplegu-politika aktiboetara bideratutako diruaren kudeaketa txarra besterik ez baitute egin.

## **1.5.- Denborak arrazoia eman dio ELAri SNE-NLn ez sartzean**

ELA da SNE-NLn parte hartzen ez duen sindikatu bakarra, horretarako eskubidea izanda. ELAk bertan behera utzi du bere parte-hartzea, hain zuzen ere, SNE-NLk ez dielako erantzuten Sindikatuak aurrera eraman behar dituzten enplegu politika aktiboak.

Aurreko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gobernu Kontseiluan parte hartzea handitu nahi izan zuen, eta parte hartzearen irizpidea aldatu zuen horretarako, ELA eta LAB sindikatuek kontseilu horretan parte hartzeko aukera ezarri.

ELA izan zen SNE-NLren Kontseilura sartzeari uko egin zion bakarra, Gobernuaren mugimendu horrek ez zuelako SNE-NLren funtzionamendua aldatu nahi, itxura aldatu baizik. Hau da, eredu pribatua mantentzen jarraitzen zen enplegu-politika aktiboetan, hau da, enplegurako prestakuntza. ELAk historikoki bi gauza eskatu ditu SNE-NLren enplegu politika aktiboak dagokienez. Lehenengoa, klientelismoarekin amaitzea, eta bigarrena, enplegu-politika arlo publikotik egitea. Bigarren puntu hori da aurrera egin ez duena. Enplegurako prestakuntza erakunde eta akademia pribatuen esku dago oraindik. Azken batean, denborak arrazoia eman digu.

2018an, SNE-NLren bidez eman diren enplegurako 602 prestakuntza-ikastaroetatik 10 baino ez dira eman Hezkuntza Sailaren sistema publikoaren bidez, zehazki.

Hau da, 2018an emandako enplegurako prestakuntza-ikastaroen % 98,4 zentro pribatuen bidez egin dira (enplegua dutenei eta langabeei zuzendutako enplegurako prestakuntza kontuan hartuta).

Horrek esan nahi du azken 4 urteetan, arlo publikotik ikastaroak emango dituen enplegurako prestakuntza-sistema baterantz aurrera egin beharrean, okerrera egin duela. 2015ean 24 ikastaro egin ziren Hezkuntza publikoaren sistemaren bidez, 2016an 43 izan ziren eta 2017an 47; 2018an, berriz, 10 baino ez dira izan. Gero eta gutxiago.

## **2.- Elkarrizketa soziala ez da batere eraginkorra enpleguaren arazoak konpontzeko**

### **2.1.- Langile-klasearen arazoak konpontzen ez dituen ereduak**

Elkarrizketa sozialaren esparruan diseinatutako politikek ez dute balio langile klasearen arazoak konpontzeko: langabezia maila altua, prekarietatea, laneko ezbehar-tasa hazten ari da, etengabeko prestakuntzaren eta lanerako prestakuntzaren kalitate txarra, eta abar. Bizi dugun egungo egoerak agerian uzten du elkarrizketa sozialaren politiken porrota.

Elkarrizketa sozialaren sinesgarritasuna aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa ikusita ere agerian gelditzen da. 2000tik 2018ra soldatapeko errenten parte-hartzeak BPGaren 5,1 puntu galdu ditu (% 47tik % 41,9ra), eta enpresen mozkinak 4,7 puntu egin dute gora (BPGaren % 43tik % 47,7ra). Pobrezia areagotzen ari den eta desberdintasuna gero eta handiagoa den gizarte batean funtsezkoa da gai hau.

Era berean, azpimarratu behar da lan-prekarietatea gero eta handiagoa dela, eta horrek eragiten duela, besteak beste, lan-ezbeharrak areagotzea edo Nafarroan biztanleria landunaren % 12 gizarte-bazterketako arriskuan egotea.

## **2.2.- kudeaketa-eredu opakoa da**

Elkarrizketa sozialaren kudeaketari eta horretara bideratzen den diru publikoari buruzko informazio eza kezagarria da. ELAk behin eta berriz exijitu du gardentasun handiagoa eta kontrol parlamentarioa egotea erakunde horiek bideratzen edo kudeatzen dituzten partiden inguruan.

Opakutasunak irregulartasunak ahalbidetu ditzake. Beraz, derrigorrezkoa da diru publiko ororen kudeaketa gardena izatea eta fiskalizatzea.

Elkarrizketa sozialaren eredu hau bera da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren hitzarmenen edo Andaluziako enplegu-erregulazioko espedienteen eta Bankiako txartel opakoen eskandaluak eragin dituen.

Izan ere, Comptos Ganberak elkarrizketa sozialarekin lotutako elementuak fiskalizatu dituen guztietan irregulartasunak atera dira argitara.

Hala gertatu da Comptos Ganberaren hainbat txostenekin; 2007an, Nafarroan Europar Batasunetik jasotako funtsei buruzko txostenak, Gizarte Funtzaren arlokoak, 700.436 euroko aldea hauteman zuen 2000-2002 aldirako, INAFREren bidez Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-zentroei ordaindutakoaren eta Bruselari egiaztatutakoaren artean. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2012ko fiskalizazio-txostenak esan zuen saihestu egin behar zela bertako zuzendaritza-organoetan parte hartzea, eta, aldi berean, hark ematen dituen diru-laguntzen onuradun izatea. 2013ko Moderna Planari buruzko txostenak dio Moderna Fundazioak publikoa izan beharko lukeela, eta ez pribatua.

## **2.3.- Elkarrizketa sozialak okerreko mezua bidaltzen die langileei**

Askotan errepikatu izan den "denak ontzi beran goaz" mezua elkarrizketa sozialean dauden erakundeentzat baino ez da egia. Gainerako jendearentzat erabat faltsua da.

Batetik, langile klasearen interesak ez direlako patronalaren interesen berdinak, bistan denez. Beraz, ezinezkoa da langile klasearekin zein patronalarekin betetzen duten politika egitea.

Hau da, langile klaseak bere baldintzak hobetzeko borrokatu behar duen bitartean, patronala da baldintza horiek prekarizatzen dituzten lan-erreformak defendatzen eta aplikatzen dituen. Patronalak lan prekarietatearekin negoziua egiten du.

Egoera horren aurrean, elkarrizketa sozialak langile klasearen arazoak konponduko dituela saltzen saiatzea hari gezurra esatea da.

Gainera, horrek oso egoera erosoan jartzen du patronala; izan ere, ez badu akordiorik lortu nahi bere interesen aurka doalako, ez du egingo. Azken batean, elkarrizketa sozialean sakontzea patronala bera zuritzea da, eta langile klasea prekarietatera kondenatzea.

Bestalde, Nafarroako Gobernu berriak dagoeneko argi utzi du patronalaren interesak gauza guztien aurrean defendatzeko iritsi dela. Hala erakusten dute haren lehen erabakiek. Ondare Zergatik enpresen ondareei zama kendu nahi izateak enpresa gutxi batzuei bakarrik egiten die mesede, horiek izanik, gainera, ondare gehien dutenak.

Gauza bera gertatzen da AHTarekin. Gizartearen interesen guztiz kontrakoa den proiektua da, eta eragin ekologiko eta ekonomiko suntsitzailea du, bere eraikuntzak dakarren negoziotik bakarrik ulertzen da honen alde egitea.



Era berean, 2018ko superabita zorra amortizatzeko erabiltzea finantza-entitatei bakarrik egiten die mesede. Hau da, 2018an gastatu gabe geratu zen dirua zor publikoa amortizatzeraz bideratuko da, gizarte-beharrak eta aurrekontu-doikuntzak kezkarriak diren bitartean.

Azken finean, alde batetik langile klaseak kontrako interesak ditu patronalarekin, eta bestetik Nafarroako Gobernua patronalaren alde kokatu da bere erabakiekin.

#### **2.4.- Patronalak betoa jar diezaiokie bere interesen aurka doan edozein ekimeni**

Lan baldintzak hobetzeko patronalaren interesen aurka egin behar da. Bistan da interes kontrajarriak direla langile eta patronalarenak. Elkarrizketa sozialak patronala zuritzen du, eta bere baitan hartzen diren akordioek eta enplegu-planek langile klaseari ere mesede egiten diotela islatzen saiatzen da. Ez da posible. Patronalak akordioak lortzeko betoa duen bitartean, akordio horiek ez dira inoiz enpresen interesen aurka joango.

Lan prekarietatea da enplegu politikari kezka eragin beharko liokeen arazo handienetako bat, eta elkarrizketa sozialak ez dio inoiz aurre egingo, patronalari bere interesen kontrako akordioak ez lortzeko gaitasuna ematen zaiolako, hau da, beto eskubidea du.

Elkarrizketa sozialak interes guztiei mesede egiten diela dioten mezu okerra oso kaltegarria da langile klasearentzat. Patronalak ez du bere interesen kontra mahai batean adostuko.

#### **2.5.- Elkarrizketa sozialak finantzaketa bake sozialagatik trukutzen du**

Elkarrizketa horren parte diren erakundeek aurrekontu publikoen zati bat esleitzearen eta kudeatzearen truke aplikatzen diren politikak laguntzea edo txalotzea da elkarrizketa soziala. Horrela, gobernuek beren politiken erantzukizunak eta enpresek enpleguan, prestakuntzan edo laneko segurtasunean eta osasunean dituzten erantzukizunak desagertzen dira.

#### **2.6.- Premiazkoa da praktika antidemokratiko horiekin amaitzea**

Lan harremanen demokratizazioa egiteke dagoen zeregina da. Elkarrizketa sozialean egin diren akordio, enplegu-plan, Moderna Plana eta abarrek izendatzaile komuna dute: kudeaketa publikotik eta legebiltzarraren kontrolpetik ekonomia eta enplegu politiken eztabaida eta erabakia ateratzea.

#### **2.7.- Ez da balantze objektiborik egiten neurrien emaitzei buruz**

Botere kuotak banatzen jarraitzeko eta diru publikoa kudeatzeko balio duen propagandatik haratago, inoiz ez dira balantzeak egiten elkarrizketa sozialaren baitan adosten diren neurrien emaitzen inguruan. Are gehiago, ezinezkoa da jakitea, propagandatik haratago, zertan gastatu den bideratutako dirua, zer irizpideren pean eta zer emaitza izan dituen.

Helburuak eta neurriak ezartzerakoan aurrez pentsatutako anbiguotasunak, izan ere, balantzeak egiteko eta emaitzak baloratzeko edozein aukera ezabatzea dakar.

### **3.- Aurreko Nafarroako Gobernuak ez zuen elkarrizketa soziala hautsi nahi izan**

Geroa Baik, EH Bilduk, Podemos - Ahal Duguk eta Izquierda - Ezkerrak sostengatutako Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta CEN, UGT eta CCOOen arteko hitzarmenak sinatu eta berehala hasi zuen bere legegaldia.

Are gehiago, 14 hitzarmen sinatu ziren Barcinaren Gobernuak jardunean zegoenean, hau da, hauteskundeak egin eta Barkosek presidente kargua hartu zuen bitartean.

ELAk egin zuen presio handiena hitzarmen horiek erretiratzeko, eta, Gobernuak egindako salaketari esker, hitzarmen horiek ezabatu zituen, nahiz eta 2016an baten bat errepikatu. Hitzarmen horiek kentzea txalotu zuen ELA sindikatuak, elkarrizketa sozialaren atal ilunenetako bat ezabatzea suposatzen zuelako.

Hala ere, aurreko Gobernuak hitzarmen horiek ezabatu izanak ez du esan nahi elkarrizketa sozialaren finantzaketa-politika erabat baztertu zuenik.

Horren erakusgarri da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzen duen Foru Legea bere horretan mantendu dela. Hau da, ez zen guztiz edo zati batean eraberritu edo ezabatu ere egin, eta Kontseilu honetan parte hartzeagatik soilik finantzatzea aurreikusten duen artikulua ere bere horretan jarraitzen du.

Honetaz gain, legegaldiaren amaieran Manuel Ayerdik zuzendutako Ekonomia Garapenerako Saitetik hartu zen azken erabakietako bat Lan Osasuneko Lurralde Ordezkararen figura berreskuratzea izan zen, CEN, UGT eta CCOOentzat 400.000 euroko finantzaketarekin.

UGT eta CCOOeko langileen soldata eta gastuak ordaintzea da figura hori berrezartzea, ordezkaritza sindikalik ez duten enpresak bisitatu ditzaten, lan osasunaren arloan aholkuak emanteko. Arlo horretan patronalak ere ados egon behar du, pertsona horiei enpresetara sartzen uzteko. Horrek esan nahi du ordezkaritza horiek CENek nahi dituen enpresetara bakarrik sartzen direla, eta horrek zalantzan jartzen du figura hori, baita teorian ere.

Baina teoria hori bada, praktika da Lan Osasuneko lurralde Ordezkararen figura hori egon denean, pertsona horiek hauteskunde sindikalak sustatzen aritu direla. Hau da, UGT eta CCOOeko pertsonen ordaindu zaie eta hauek lan sindikala egin izan dute. Hitzarmenekin gertatzen zen bezala.

Horren erakusgarri da figura hori egon den bitartean ez dutela inoiz salaketarik egin lan-osasuneko arauak ez betetzeagatik, eta ez dutela ekintza sindikalari dagozkionak baino ekintza gehiagorik egin.

### **4.- Gobernu berriarekin dator Elkarrizketa Sozialaren *remake*-a**

Enplegu politikaren arloan Nafarroako Gobernu berriaren lehen erabakietako bat Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua berraktibatzea da. Eta hau elkarrizketa sozialaren irakurketa kritikoa egin gabe gauzatu nahi du.

Hori elkarrizketa sozialaren nortasun-ikur bat da, iraganari buruzko baloraziorik ez egitea eta kritikarik ez egitea (edo egindako guztia ontzat jotzea). Ezaugarri hori enplegu-planetan ezen,

sinatzen diren guztietan ematen da. Inoiz bete ez diren itxaropen eta helburu handiak iragartzen dira, eta ondoren ez da hauen inguruko baloraziorik egiten.

Gauza bera gertatzen da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzen duen 22/2014 Foru Legearen hitzaurrearekin. Hitzaurre horrek elkarrizketa soziala Nafarroan izan denaren errealitatetik guztiz kanpo dagoen irakurketa egiten du, esanez "*elkarrizketa sozialaren arloan Nafarroak izan duen esperientzia biziki emankorra*" izan dela.

Ezer ez du esaten Foru Lege honek Comptos Ganberak salatu dituen irregulartasunei buruz, gai hau ikuskatzera sartu den bakoitzean, edo bertan ezkututzen diren beste hainbeste irregulartasun eta politika opaku eta antidemokratikoei buruz. Edo langile klasearen interesak urte hauetan guztietan lortu duen onura hutsalaz.

Foru Lege hau ez da koma bat ere aldatu Barcina Gobernuan zegoela onartu zenetik, eta orain bere horretan berpiztu nahi da, hitzarmenen eskandalua aipatu ere egin gabe.

Ez da harritzekoa PSNk gidatutako Gobernu batek politika honetara itzuli nahi izatea. Izan ere, Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortu zuen Foru Legea PSNren ekimen bat izan zen (lehen aipatutako Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Akordioaren barruan). Agian harridura handiagoa sortu beharko luke beste edozein talde parlamentariok kontseiluaren berraktibatzea defendatzeak. Izan ere Foru Lege hau UPN eta PSNren aldeko botoekin eta Bildu, Aralar-Nabai, PPN, I-E eta atxiki gabekoen kontrako botoekin onartu baitzen. Hau da, UPN eta PSN bakarrik egon ziren alde, gainontzekoek (orain Geroa Bai osatzen dutenek eta Izquierda-Ezkerra barne) kontra bozkatu zuten. Ez da erraza ulertzea nola orain alde egon daitekeen bere garaian aurkako bozka emandako ekimen batekin, Foru Lege honek apika bat ere aldatu ez duenean.

Azken batean, gaur egungo Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bilera deitu du 2019ko urriaren 31rako, politika ilun eta ez-eraginkor batera itzultzeko.

Gobernu honek 3 negoziazio-foro ezarri nahi ditu:

1. **Enplegu-politika aktiboak** Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren esparruan negoziatuko dira.  
Alde horretatik, esan behar da egungo Chiviteren Gobernuak izendatutako Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari berria UGTko kide izana dela Nafarroan.
2. **Lan-osasunari** dagozkioak, Nafarroako Lan Osasuneko Kontseiluan aztertuko dira, non UGTk, CCOOk, CENek, ANELEk eta CEATEk parte hartzen duten. Adierazi behar da ELAk eta LABek organo horretan dugun parte-hartzea etetea erabaki genuela, ez baitu balio segurtasun eta osasun-baldintzak hobetzeko; aldiz, CEN, UGT eta CCOO sindikatuek mutuen soberakinen kudeaketa banatzen jarraitzen dute, eta horrek esan nahi du lan-kotizazioen bidez metatutako dirua erakunde horientzako diru-laguntzetara bideratzen dela.
3. **Enplegu Plan berri bat** egitea Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan. Ikusi den bezala, enplegu-planak dira elkarrizketa sozialean parte hartzen duten erakundeek behar duten tresna finantzaketa publikoa lortzeko eta diru-publikoaren kudeaketa izateko. Lan-baldintzak, ezbehar-tasa edo enpleguaren kalitatea hobetzeko guztiz ez-eraginkorrak dira politika hauek, baina oso onuragarriak dira bertako kideentzat.

PSN, Geroa Bai eta Podemos- Ahal Duguren arteko koalizio Gobernuak erabaki du 3 foro horietako edozeinetan hartzen den edozein erabaki Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan berretsi behar dela.

Puntu hau oso larria da, bertan parte-hartzen duten erakundeei beto ahalmena ematen baitzaie beste organoetan hartzen den edozein akordio edo erabakiri dagokionez. Neurri hori guztiz antidemokratikoa da, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren esku uzten baitu beste organoren batean lortutako edozein erabaki edo akordio onartu edo ez erabakitzea.

Lehengo politiketarako bidea hemen amaitzen da, non parte-hartzaileek diru publikoaren finantzaketa eta kudeaketa lortzen duten enplegu-planen bidez, enplegu-politikak pribatizatzen diren eta, gainera, praktika antidemokratikoak ezartzen diren, erakunde jakin batzuei beto ahalmena ematean.

Laburbilduz, Nafarroako Gobernua CEN, UGT eta CCOOen zerbitzura jartzen ari da enplegu politika. Adibide gisa, Hezkuntza sailburuak itunpeko hezkuntzaren eremuko ordu sindikalen zenbaketa irizpidea aldatu du. Honen emaitza ELAk liberatutako pertsona bat gutxiago izatea eta UGTk bat gehiago izatea izan da.

## **5.- Politika horiek aldatu behar dira, eta kanpotik bakarrik egin daiteke**

ELA sindikatuaren ekintzagatik ez balitz ez zen hitzarmenen eskandalua ezagutuko, eta batek daki zer gertatuko zen. Beraz, honetatik atera behar den irakurketetako bat da elkarrizketa sozialari soilik kanpotik egin dakiokela aurre.

Nafarroako Gobernuak hitzarmenak alde batera utzi zituen ELAren salaketaren eta temaren ondorioz. ELA izan zen hitzarmen horien existentzia salatu zuen lehen sindikatua, eta praktika guztiz antidemokratiko horrekin amai zedin benetako kanpaina egin zuen bakarra.

ELAk Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren klientelismo antidemokratikoaren egoera jasanezinari buelta emateko egin duen ekintza politikoa izan da batez ere, baina baita judiziala ere. ELAk errekursoa jarri zuen epaitegian Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta UGTren artean sinatutako hitzarmenetako baten aurka, eta epaileak gaiaren mamira sartu gabe itxi zuen prozesu hura.

Hitzarmen horien desagerpenak erakutsi du UGT eta CCOOen egituretan 120 pertsona inguru zeudela hitzarmen horietatik euren lan-kostua ordainduta.

Bestalde, argi geratu da ere ELAk asmatu egin zuela Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gobernu Kontseiluan ez sartzean. Inolako sindikatuk ezin izan du baldintzatu elkarrizketa soziala ezein organoren barrutik, ezta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan ere. Orain Gobernu Kontseilu honetan hartzen diren erabakiak Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan berretsi edo betatuko dira, iñork sinesten al du oraindik ere organo hauen barrutik politika hauen aurka edo patronalaren interesen kontra doazen erabakiak har daitezkeela?

## 6.- Ondorioak

- **Porrot egin duen eredu ilun bat da, eta CEN, UGT eta CCOOeri bakarrik egiten die mesede**

Elkarrizketa soziala baliabide eta politika publiko jakin batzuen pribatizazioa eta kudeaketa eskusiboa da, modu ez gardenean egina.

Kudeaketa-eredu eta enplegu-politiken eredu hori guztia berpiztu nahi izatea eredu horretan parte hartzen dutenen onurarako baino ez da, gizartearen gainerakoarentzat eta langile klasearentzat porrot egin duten eta bere arazoak konpontzeko eraginkorrak ez diren politikak baitira.

- **Lan baldintzak hobetzea ezinezkoa da patronalak beto eskubidea badu**

Lan baldintzak patronalaren interesaren kontra hobetzen dira. Patronalak bere interesen kontra doan edozein akordio edo ekimeni betoa jartzeko ahalmena badu, ezin dira lan baldintzak hobetu.

Elkarrizketa sozialak okerreko mezua bidaltzen dio langile klaseari. Langileen arazoak ez dira konponduko patronalaren interesei mesede egiten zaien akordioekin. Patronalak ez du bere interesen kontra ezer adostuko mahai batan aurrean.

- **Elkarrizketa sozialaren irakurketa kritikoa beharrezkoa da**

Jarrera guztiz hipokrita da elkarrizketa sozialarekin tabula rasa egiten saiatzea negoziatzeko mahai bat baino ez dela argudiatuz. Asko dago horren atzean, eta beharrezkoa da hori aitortzea eta balorazio kritikoa bat egitea. Nafarroan elkarrizketa soziala izan den guztiaren irakurketa kritikoa egiten ez bada, eskandalu berberak errepikatuko dira berriro.

- **Sanz eta Barcinaren garaiko enplegu politikarik okerrenera itzuli nahi da**

Barcinak CEN, UGT eta CCOOekin sinatu zuen akordio baten ondorioz sortu zen Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua. Nafarroako UGTko Idazkari Nagusia zena orain parlamentaria da PSNren aldetik. Gainera, PSNk erregistratu zituen Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua ekarri zuen Foru Lege ekimena eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta CEN, UGT eta CCOOen arteko hitzarmenak finantzatzea ekarri zuena. Hitzarmen horiek sinatu zirenean Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendaria zena, orain Navarra Sumako parlamentaria da. Azken batean, politika berdinerara itzuli nahi da, eta kasuren batean pertsonak ere berdinak dira.

- **Nafarroako Gobernuak argi utzi du patronalaren eta finantza erakundeen interesak defendatzeko etorri dela**

Gobernuak ekintzen arabera baloratu behar dira, eta ez egiten dituen adierazpenengatik edo propagandagatik. Alde horretatik, Maria Chiviteren Gobernuak oso argi utzi du denbora gutxian patronalak nahi duena egiteko dagoela, hala nola enpresa ondareari ondarearen gaineko zerga

kentzen edo AHTarekin tematzen, eta baita ere finantza erakundeek nahi dutena egiteko, hala nola 2018ko superabita zorra amortizatzeraz bideratuz.

- **Politika hauek kanpotik bakarrik aldatzen dira, eredu kontua da**

Ez da posible elkarrizketa soziala aldatzea bertan parte hartuz. Eredu kontua da. ELAk ez du langile klaseari egiten zaion iruzur lazgarri honetan parte hartu nahi, eta ez du horretarako beharrik ere. Arazoa ez da sindikatu batzuen bazterketa. ELAren eredu sindikalaren (afiliazioan eta aurrekontu propioetan oinarritzen dena) eta UGT eta CCOOen ereduaren (garaiko gobernuak emango dizkion diru laguntzen menpe dagoena) artean dago aldea. Langile klasea benetan defendatzen duen sindikalismo batek autonomia politiko eta ekonomikotik baino ezin dio aurre egin erronka honi, zailtasun guztiak gorabehera, eta zintzotasunetik eta gardentasunetik.



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**